

MINTZAMENA



Ekintza komunikatiboa: Plataforma bateko kideak, irratian, informatzeko asmoz, bere kultur eskaintzaren berri jariorasunez ematea.

Basklink

- Esataria:** Zer asmorekin zebiltzan aurreratu genuen orain dela hilabete batzuk, baina dagoeneko jaio da mugaz gaindiko turismo-aukerak biltzen dituen plataforma digital berria. Basklink du izena, eta Leire Agirrezabala da komunikazio- eta marketin-arduraduna. Arratsalde on, Leire.
- Leire Agirrezabala:** Arratsalde on.
- Esataria:** www.basklink.com atarian dago plataforma hori. Eta, esadazu: zerk bereizten du plataforma hau dauden beste batzuekiko?
- Leire Agirrezabala:** Bada, beno, kontua da plataforma honek bere baitan biltzen duela euskal zazpi probintzietan dagoen turismo-eskaintza, bai EAEn, Nafarroan eta Iparraldeko hiru probintzietan. Orduan, zentzu horretan, bai esan genezakeela aitzindaria dela edo, behintzat, aitzindarienetakoa, beste inon ez dagoelako gisa horretako lurralde bat biltzen duen plataforma turistikorik.
- Esataria:** Zenbat denbora kostatu zaizue hau martxan jartzea?
- Leire Agirrezabala:** Buf! Martxan jarri, esan dezagun, aste honetan egin dugu, baina ia urte eta erdi pasatxotik datorren kontua da.
- Esataria:** Eta, probintziak bezala, zuek ere zazpi zarete, ezta?
- Leire Agirrezabala:** Bai, gu ere zazpi gara. Ez dugu esango probintzia guztietakoak, baina bai alde batekoak eta bestekoak.
- Esataria:** Lurraldetasuna eta mugaz gaindikotasuna ere izan duzue aintzat baita ere, ez?
- Leire Agirrezabala:** Bai, baita ere. Uste dugu gure proiektuan garrantzitsua dela lurraldea bera ezagutzea eta, beraz, bai mugaz alde bateko eta besteko jendeak elkarlanean jardutea.
- Esataria:** Adibide batekin gauzak hobeto ulertzen direlako: esate baterako, nik leizeak non dauden jakin nahi dut. Zer egin beharko nuke zuen atari horretan?
- Leire Agirrezabala:** Aukera bat baino gehiago daukazu horretara iristeko: alde batetik, edukiko genituzke ibilbide tematiko batzuk, non ondarea biltzen den eta non ondarearen barruan leizeak ere biltzen diren. Ibilbide tematiko horiek, izan tematika dena delakoa, beti dira mugaz gaindikoak. Orduan, zu joango bazina ondarearen ibilbide horretara, hor topatuko zenituzke, bai Isturitz eta Otsozelaiko leizeak, Sarako leizeak, Pozalaguako leizeak, Arrikurutzekoak, Ekaingoak... hor pixka bat denak bilduko lirateke. Eta, beste alde batetik, badaukazu direktorio osatu bat web-gunean, non biltzen diren Euskal Herri guztiko jatetxe, lo-leku eta bestelako zerbitzu turistikoak. Orduan, bestelako zerbitzu turistikoen atal horretatik ere, iritsi ahalko zinateke leizeen informazio konkretua jasotzera, bakoitzak daukalako bere fitxa.

- Esataria:** Eta demagun ekitaldi bat egiten dela leize horietako baten barruan. Horren inguruko informazioa ere topatuko dut zuen plataforman?
- Leire Agirrezabala:** Bai. Guk gure plataforman, besteak beste, jarriko dugu Euskal Herri guztiko ekitaldien agenda ahalik eta osatu eta eguneratuena. Orduan, hor bertatik ekitaldi horien barruan sailkatuz (kulturala den, kirol-ekintza bat den, edo zein gisatako ekitaldia den...) sartu ahalko zinateke, baita ere, bertan dauden ekitaldiak zein diren jakitera.
- Esataria:** Eta, hau zer da? Euskal Herri barruko jendearekin pentsatuta? Edo atzerritarrak ere izan dituzue aintzat?
- Leire Agirrezabala:** Bada, biak hartzen ditugu kontuan. Batetik, jakinik lau hizkuntzetan jarri dugula (ingelese izango litzateke atzerritarrentzat-edo jarri duguna; eta frantsesa ere bai), baina, beste alde batetik, bertako euskal herritarrentzako ere pentsatu dugu. Azken batean, barne-turismoan lan bat egiteko dagoela uste dugulako. Alde batetik, ez dugulako behar beste ezagutzen alde bateko eta besteko eskaintza, eta, bestetik, alde bateko eta besteko opor-egunak, jai-egunak eta abar ez direlako berdinak; zubiak-eta ere, ez; eta, beno, turismoa desestazionalizatzeko asmo horrekin, bada, pixka bat lagundu nahi genuelako. Eta atzerritarrei begira, bada, pixka bat nahi duguna da Euskal Herri autentiko edo benetako baten lurralde bat markatu, beraien aisia-aukerak eta beraien bidaiatzeko aukerak, bada, pixka bat zabaltzeko eta aberasteko, baita ere, zentzu horretan.
- Esataria:** Eta, beno, erabiltzaileak zer egin behar duen badakit. Baina bertan egoteko, norbaitek eskaintzaren bat baldin badauka, zer egin behar da zuekin harremanetan jartzeko?
- Leire Agirrezabala:** Beno, bada, hor bertan telefono-gida zuzenak daude. Emailaz ere jarri liteke gurekin harremanetan, mezua bidalita; eta, bestela, sare sozialetatik, facebooketik zein twitterretik ere, jarri liteke gurekin harremanetan.
- Esataria:** Azpimarratu nahi duzun beste zerbait, Leire?
- Leire Agirrezabala:** Bada, ez; denak animatu basklink.com-en sartzera, eta, beno, erabiltzen ere bai, ze uste dugu gauza kurioso edo erabilgarri batzuk topatuko dituela.
- Esataria:** Mugaz gaindiko aurreneko ekimena da; aitzindaria da, eta horrexegatik ekarri nahi izan dugu gaur basklink hona, "mezularia"-ra. Leire, eskerrik asko, segi ondo.
- Leire Agirrezabala:** Mila esker.

Leire Agirrezabalari elkarrizketa
Euskadi Irratia: *Mezularia* irratsaioa (2015/03/11)